

2018-12-20an onetsia

2019-02-14an aldatua

2020-05-21ean aldatua -Egoitzako GRAL-Batzordea (7. atala)

2021-12-3an Zentroko Batzarrak aldatua (7. atala)

2021-11-26an eta 2021-12-3an Zentroko Batzarrak aldatua (lana entregatzea eta tutorearen ebaluaziorako txantiloia)

2023-05-09an aldatua (Fakultateko Batzarra)

2024-11-11an aldatua (Fakultateko GRAL eta MALaren Batzordea)

GRADU AMAIERAKO LANAREN GIDALIBURUA

LAN HARREMAN ETA GIZA
BALIABIDEETAKO GRADUA
NEGOZIOEN KUDEAKETAKO + LAN HARREMAN ETA
GIZA BALIABIDEETAKO GRADU BIKOITZA

Edukia

1. XEDEA ETA TESTUINGURUA.....	2
2. GRADU AMAIERAKO LANAREN GAITASUNAK	2
3. IKERKETA GAIK ESLEITZEA	3
4. TUTORETZA PROZESUA ETA GRALeko TUTOREAREKIKO HARREMANA.....	4
5. GRALaren FORMATUA, EGITURA ETA LUZERA (LLHH eta GBko Gradua).....	6
6. GRALa EGITEKO JARRAIBIDEAK.....	9
7. GRALeko MATRIKULA, LANA ENTREGATZEA ETA DEFENDATZEA.....	12
8. GRALaren EBALUAZIOA.....	13
9. BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA.....	14
10. ERANSKINAK	15

Oro har, GRALa UPV/EHUK eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduak horretarako dituzten arauen arabera egingo da, eta eskuartean duzun gidaliburu hau ikasleak orientatzeko tresna bat da, lanaren garapen eta tutoretza prozesuan. Bertsio honek honako hauei buruzko aldaketak biltzen ditu: tutorearen funtzioei, printzipio eta balio demokratikoei zein GJHei buruzko hausnarketa sartzeari eta ondorio etikoak dituzten GRALei buruzkoak, horiek guztiak *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegian* jasoak, 2024ko apirilaren 10ean argitaratua EHAAn.

1. XEDEA ETA TESTUINGURUA

Gradu Amaierako Lana (aurrerantzean, GRALa) sei kredituko irakasgaia da, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduak 4. mailakoa eta Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzeko 5. mailakoa. Gradu bikoitzeko ikasleek 5. mailan Negozioen Kudeaketako Gradu Amaierako Lana ere egin behar dute (12 kreditu). Gidaliburu hau Lan Harreman eta Giza Baliabideetako GRALerako da, ez da Negozioen Kudeaketako GRALerako.

Ikasleak nahitaez egin behar du GRALa, bakarka eta ikastegiko irakasle baten zuzendaritzapean.

GRALaren xedea gizarte zientzien jakintza arloko gai bat izango da, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren curriculumaren edukiarekin zerikusia duena. Ikastegiak eta unibertsitateak horretarako prestatu dituzten jarraibide eta arauetara egokitu beharko da lana, formari, edukiari eta defentsa prozedurari dagokienez. GRALaren tutoretza ere ikastegiaren arautegian ezarritako prozeduraren bidez arautuko da.

Ikasketen amaierako lanaren helburu nagusia da ikasleak ikuspegi akademikoa eta profesionala egituratzea benetako eta jatorrizko lan akademiko batean eta, horretarako, praktikan jarri beharko ditu graduak ikaskuntza aldiaren zehar eskuratu dituen zeharkako gaitasun guztiak eta, horiek eskuratzeko, ikasketen amaierako lana egin beharko du. GRALaren edukiak graduaren gaitasun espezifikoekin lotuta egon beharko du.

2. GRADU AMAIERAKO LANAREN GAITASUNAK

Ikasketen amaierako lana egiteko prozesuan, ikasleek sendotu eta behin betiko bereganatu behar dituzte graduak ikasketak planeko irakasgai guztien irakaskuntza ikaskuntza prozesuan eskuratu dituzten zeharkako gaitasunak. Beraz, GRALaren gaitasunak graduaren zeharkako gaitasunak dira.

Argitasunaren mesedetan, graduak zeharkako gaitasunen zerrenda eta GRALaren bidez lortu beharreko ikaskuntzaren emaitzak baino ez ditugu adieraziko beheko taulan.

GRALeko tutoreak eta ahozko defentsa entzungo duen epaimahaiak ebaluatuko dute gaitasun horien eskurapena.

GAITASUNA	DESKRIBAPENA
Ahozko komunikazioa	Ahoz egoki (eraginkortasunez) komunikatzea, transmititzea eta erlazionatzea, tituluaren berezko hizkuntza teknikoaren erabilera.
Idatzizko komunikazioa. IKTen erabilera	Ahoz egoki komunikatzea, transmititzea eta erlazionatzea, tituluaren berezko hizkuntza teknikoaren erabilera. Datu baseak eta Interneteko tresnak baliatzen jakitea erabilgarri mailan.
Informazioaren tratamendua	Lan munduko informazio garrantzitsua behar bezala biltzea, hautatzea eta aztertzea, eskuratutako hizkuntza teknikoan oinarrituta.
Problema ebaztea	Problema eraginkortasunez ebaztea, eskuratutako gaitasunak eta trebetasunak erabiliz, egon daitezkeen alternatibak identifikatu eta baloratzeko.
Ingurunera egokitzea	Heziketa humanista eta profesionala txertatzea, gizartearen aldaketa tekniko, sozial, laborala eta kulturali aurre egin ahal izateko, bizitzan zehar etengabeko prestakuntza prozesu baten bidez.
Pentsamendu kritikoa	Lan munduaren errealitate sozial, juridiko eta ekonomikoa kritikoki interpretatzea, graduaren eskuratutako datuen eta jakintzen arabera.
Portaera etikoa	Gizarte jarrera garatzea, gizabanako eta kolektibo sozial desberdinek pairatzen duten bazterketa, zapalkuntza eta zokoratze sozial, laborala, kultural eta generokoaren aurrean sentsibilitate informatua ulertu eta erakusteko.
Gatazken kudeaketa	Lan munduko interes kontrajarrien ondoriozko gatazka identifikatzea, onartzea, bideratzea eta, hala badagokio, konpontzea.

3. IKERKETA GAIK ESLEITZEA

GRALeko ikerketa lerroa eta tutoreak esleitzeko behar den informazio guztia graduaren webguneko GRALen atalean dago eskuragarri.

4. TUTORETZA PROZESUA ETA GRALeko TUTOREAREKIKO HARREMANA

GRALa egiteko prozesuaren tutoretza lanaren ikerketa lerroa dagokion sailak izendatutako ikastegiko irakasle batek egingo du.

Tutorearen eginkizunak hurrengoak dira:

1. jarraipena egitea eta defentsaren aurretik idatzizko txosten bat egitea. Txosten hori ikasleari helaraziko zaio eta II. Eranskineko ebaluazio-txantiloira egokituko da.
2. Lanaren garrantzi etikoa baloratzea, izan ditzakeen ondorio etikoak aurreikusteko (9. artikulua), baldin eta GRALak pertsonen informazioa edo datuak lantzen baditu, eta ikasleei orientabidea ematea UPV/EHUko Etika Batzordeak lan akademikoetarako indarrean ezarri dituen jarraibide etiko espezifikoak betetzeko.
3. Beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa erabiltzen duten lanen identifikazio eta justifikazio akademikoa, ikasleak modu anonimoan egin ditzan bideratuz, inplikaturako pertsonak ez direla identifikatzen bermatuz.
4. Ikasleei aholkuak ematea iturri egokiak hautatzeko eta erreferentzia egokiak egiteko, bai eta lana idazteko eta epaimahaiaren aurrean aurkezteko ere.

Tutoretza 5 fasetako prozedura baten bidez arautuko da eta fase horietako bakoitza tutoretza elkarrizketa edo saio bati dagokio, GRALaren aztergaiaren edo xedearen hautaketa, hasierako proiektuaren gauzatzea, lanaren garapena eta azken berrikuspena bezalako alderdiak barne hartuta. Prozedura hori GRALari buruzko arautegian zehazten da.

Tutoretza prozesuak gutxi gorabehera **2,5 orduko iraupena** izango du eta luzeagoa ere izan daiteke, lanaren tutoreak beharrezkotzat jotzen badu.

Ikasketen amaierako lana egiteko prozesuan, ikasleak hainbat bilera egin beharko du lanaren tutorearekin eta honako fase hauek har ditzake erreferentziatzat:

- a) **GRAL proiektuaren diseinua:** lana garatzen hasi aurretik, ikasle bakoitzak, tutorearen laguntzarekin, proiektu bat egin beharko du (I. eranskina). Proiektu horretan, folio batean eta modu sintetikoan, garatu beharreko ikerketa definituko da eta honako hauek adieraziko ditu dagozkion ataletan:

- Ikaslearen izen-deiturak
- Tutorearen izen-deiturak
- GRALaren izenburua

- Justifikazio eta helburuak
- Metodologiaren (ikerkuntza enpiriko edo bibliografikoko lana) edo prozesu praktikoaren (lan praktikoa) deskribapen laburra
- Hasierako bilaketa bibliografikoa

Tutoreak proiektu honen atalak azalduko dizkio ikasleari eta lagunduko dio honako hauek egiten:

- GRALaren esparrua azaltzea
- GRALaren egitura definitzea
- Abiapuntuko informazioa ematea
- GRALean jarraitu beharreko jarraibide formalak ezartzea
- Ebaluazio irizpideak ulertzea
- Hurrengo tutoretza bileren egutegia finkatzea.

b) GRAL proiektuaren aurkezpena: fase honetan, lehenengo bilera egin eta astebetetik bi astetara bitartean, ikasleak GRALaren proiektua aurkeztuko du. Tutoreak gomendioak emango dizkio ikasleari, GRALaren proiektua hobetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen alderdietan. Lanaren garapena hasierako proiektutik desbidera daiteke, behar bezala egiteak hala eskatzen badu.

c) GRALaren garapenaren jarraipena (1): GRALaren garapenari buruzko lehenengo bilera hori proiektua aurkeztu eta bi astetara egingo da eta tutoreak egingo du:

- GRALaren edukia, egitura, sakontasuna, hedadura eta formatua egokiak direla egiaztatuko du.
- Dauden arazoak identifikatuko ditu eta ikasleari horiek konpontzeko gomendioak emango dizkio.
- Ikasleari lagunduko dio zalantzak argitzen.
- Ikaslearekin ados jarriko da lanaren jarraipena egitean egin beharreko atazei buruz eta hurrengo jarraipen bilerarako data bat proposatuko du.

d) GRALaren garapenaren jarraipena (2): bigarren jarraipen bilera hori aurrekoa baino hiru aste geroago egingo da eta tutoreak honako hauek egin beharko ditu:

- Aurrekoan egindako lan berberak egitea
- Ikasleari lana hobetzeko gomendio egokiak ematea, lana amaitzeko.
- Hurrengo eta azken jarraipen bilerarako eguna ezartzea.

e) **GRALaren azken berrikuspena:** azken saioa egin eta hiru bat astetara egingo da eta tutoreak honako hauek egingo ditu:

- GRALaren azken berrikuspena, ikaslearekin bere lanaren garapenean hitzartutako jarraibide guztiak behar bezala gauzatu direla egiaztatuz.
- GRALaren memoria behar bezala amaitzeko eta aurkezteko beharrezkoak diren hobekuntza gomendioak.
- GRALa egiteko prozesuaren balorazioa, idatziz eta/edo txantilo baten bidez egingo dena, II. eranskinean agertzen den dokumentuaren arabera.

5. GRALaren FORMATUA, EGITURA ETA LUZERA (LLHH eta GBko Gradua)

5.1. GRALaren harremana GJHeekin eta printzipio eta balio demokratikoekin

GRALak egindako lanari buruzko hausnarketa bat txertatu behar du printzipio eta balio demokratikoen eta GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEkin (GJH) harremana eginez. Hausnarketa horrek 200 hitz izango ditu, gutxienez, lanaren testuan atal espezifiko gisa txertatuta, eta, horretarako, EHUAgenda 2030 ([EHUagenda 2030](#)) erabili ahal izango da erreferentziazko esparru espezifiko gisa.

Gogoeta horretan balio horiekin eta GJHeekin duten lotura-maila aztertuko da, eta balio horietatik eratorritako ikuspegi kritikoa planteatuko da, honako alderdi hauei arreta berezia eskainiz:

- Giza eskubideak, (<https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>), oinarrizko eskubideak (https://www.boe.es/legislacion/derechos_fundamentales.php) eta balio demokratikoak.
- Genero-berdintasunari, tratu-berdintasunari eta jaioterri, etnia, erligio edo iritzi arrazoiengatik diskriminazio ezari errespetua agertzea, edozein baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialaren arabera.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioak errespetatzea.
- Jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren tratamendua

GRALa horietako edozeinekin lotu daitekeen arren, GJHen barruan honako hauek azpimarra genitzake, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduarekin eta Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzarekin lotuen daudenak:

- Pobrezia desagerraraztea => 1. Helburua
- Genero berdintasuna => 5. Helburua
- Lan duina eta hazkunde ekonomikoa => 8. Helburua
- Industria, berrikuntza eta azpiegitura => 9. Helburua
- Desberdintasunak murriztea => 10. Helburua
- Hiri eta komunitate jasangarriak => 11. Helburua
- Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak => 12. Helburua
- Bakea, justizia eta erakunde sendoak => 16. Helburua
- Helburuak lortzeko aliantzak => 17. Helburua
- Hizkuntza eta kultura aniztasuna => 18. Helburua

5.2. Alderdi formalak

Ikastegiaren arautegiak GRALa egiteari buruz adierazten duen bezala, 55.000 eta 110.000 karaktere arteko hedadura izango du, espaziorik zenbatu gabe.

Beharrezkoa izango da erakunde gisa identifikatzen gaituen irudi korporatiboa eta EHU tipografia ofiziala erabiltzea: EHU Sans gaztelaniazko testuetarako, EHU Serif euskarazko testuetarako ([Erakunde Irudia EHU](#)).

Era berean, nahitaezkoa izango da hizkuntza inklusiboa erabiltzea eta genero-ikuspegia kontuan hartzea.

Aurkezpenak irizpide hauei jarraituko die:

1.1 DIN A4 orrietan inprimatuko da.

1.2 Azalean honako hauek jasoko ditu:

- Gradu Amaierako Lana
- UPV/EHUren Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Bizkaia)
- Lanaren izenburua.
- Ikaslearen izen-deiturak:
- Lanaren tutorearen izen-deiturak
- Defentsa deialdia

1.3 Lanaren hasieran GRALaren laburpen bat sartuko da jatorrizko hizkuntzan (gaztelania edo euskara) eta ingelesez, gutxienez ehun hitz izango duena.

- 1.4 Lanen luzera gutxi gorabehera 35 orrialdekoa izango da, bibliografia eta eranskinak kontuan hartu barik. 11 puntuko letra tamaina erabiliko da eta 1.5eko lerroarte utzita.

1.5 Aipamenak egiteko arauak eta erreferentzia bibliografikoen formatua

Testuan jasotako aipamen bibliografikoak hiru modutan aurkez daitezke:

- a) Oin oharren bidez: testuan, erreferentziari dagokion oin oharraren zenbakia adieraziko da eta oharraren barruan jasoko dira testuaren oharraren zenbakiak aipatzen duen dokumentuaren egilea, urtea eta izenburua (ikus adibidea¹).
- b) Parentesi artean lehenengo egilearen deitura adieraziz, ondoren urtea eta orrialde zenbakia, adibidez (White, 1987: 43) edo (Guerin et al., 1992: 23 34).
- c) Egilearen deitura eta, parentesi artean, urtea adieraziz, adibidez: White (1987) edo Guerin et al. (1992).

Letra etzanez jarriko dira aldizkarien izena eta liburuen izenburua. Berdintasunaren arloko gomendioak betez, ahal den neurrian, egilea izen osoarekin identifikatuko da, eta ez inisialaz soilik.

- Oinarrizko adibide batzuk:

Artikuluak aldizkarietan: Arnall, Anthony (2006): "Family reunification and fundamental rights", *European Law Review*, 5, 611-612.

Aldizkarietako artikuluak DOI identifikatzailearekin: Barney, J. (1991). Recursos firmes y ventaja competitiva sostenida. *Revista de gestión*, 17 (1), 99-120. <https://doi.org/10.1177/014920639101700108>.

Liburuak: Villoria, Manuel eta Del Pino, Eloísa (1997): *Manual de Gestión de los Recursos Humanos en las Administraciones Públicas*, Madril, Tecnos.

Liburuetakoa kapituluak: Domínguez, Fernando (1996): "Gestión planificada de Recursos Humanos (Modelo de una empresa multinacional)", in Ordóñez, Miguel (ed.), *Modelos y Experiencias Innovadoras en la Gestión de los Recursos Humanos*, Bartzelona, Gestión 2000, 343-357.

¹ Arnall, Anthony (2006): "Family reunification and fundamental rights", *European Law Review*, 5, 611-612.

Web orrialdeak: Abizena, A., Abizena, B., y Abizena, C. (2020ko maiatzaren 20an). *Web orrialdearen artikulua*ren izenburua. Webgunearen izena. Berreskuratua eguna hilabetea urtea: <https://url.com>

Erreferentzia bibliografikoak alfabetikoki ordenatuko dira lanaren amaieran eta kronologikoki egile beraren hainbat lanen kasuan.

Era berean, EHUko liburutegi zerbitzuek hurrengo gida eskaintzen dute [APA Style 7th edition. Aipuak eta erreferentzi bibliografikoak nola egin.](#)

Oro har, GRALa idaztean, alderdi formalak zaindu egin beharko dira. Edukiak zuzen eta logikoki antolatua izan beharko du eta hautatutako gaia osatzen duten alderdi guztiei heldu beharko die. Idazketa zuzena izango da gramatikaren eta semantikaren ikuspegitik, edukiak argi eta garbi adierazita egon daitezten eta ideien arteko lotura ondo islatuta gera dadin.

Erreferentzia bibliografikoak sartu beharko dira, egileei hartutako ideiekin batera dagokien erreferentzia egon dadin, eta ideia guztiak "erreferentzia bibliografikoak" atalean jasota egon daitezten. Bertan, berdintasun gomendioak betez, izen osoarekin identifikatuko da eta ez egilearen hasierako lehenengo letrarekin bakarrik.

6. GRALa EGITEKO JARRAIBIDEAK

6.1. Modalitateak

GRALek hiru modalitate desberdini erantzun ahal izango diete, oinarri bera izan arren, bakoitza egitura eta errealizazio jarraibide espezifiko bati dagozkiorik:

- **Iherlan enpirikoak:** ahal den neurrian, lan horiek metodo zientifikoaren ereduari jarraituko diote. Metodo horrek jarduteko modu bat ematen du, ikerketara bideratutako eragiketa ordenatuen bidez. Elkarren mende dauden hainbat faseren bidez, lan mota horien helburua izango da lan harremanen eremuko errealitate sozial jakin bati buruzko datuak biltzea, eta datu horiek ikuspegi juridiko, historiko, ekonomiko eta psikosozial jakin baten bidez tratatzea eta lantzea.

Lan mota horren egitura honako hau izan daiteke:

1. Aztergaiaren edo problemaren definizioa.
2. Lortu beharreko helburuen definizioa (orokorrak eta espezifikoak).
3. Hipotesiak formulatzea.
4. Datuak biltzeko metodologia zehaztea (tresna eta iturriak).
5. Aztertu beharreko lagina hautatzea.
6. Datuak biltzea.
7. Datuak aztertzeko eta interpretatzeko.
8. Emaitzak.

9. Emaitzak interpretatzea eta aplikatzea: inplikazioak lan harremanen testuinguruan esku hartzeko.
10. Ondorioak

- **Ikerlan teorikoak**, deskriptiboak eta gaurkotasuneko eta graduatuentzat interesgarriak diren gaien edo arazoen berrikuspen eta ikerketa bibliografikoak. Era horretako lanetan, lan harremanen testuinguruko edozein alderdi juridiko, ekonomiko, soziologiko, psikosozial, antolamenduzko eta historikori buruzko azterlanaren xede egoki eta beharrezko bati buruzko bibliografiaren berrikuspenean jarriko da arreta, bai eta azterlanaren xedearekin lotutako kontzeptuak, datuak eta teoriak modu logiko, sortzaile eta egituratuan erlazionatzeko gaitasunean ere.

Lan horien egiturak, ikerketa enpiriko bati buruzko lanak ez badira ere, horien antzeko logika izan beharko du, baina datu enpirikoak lortzeari eta aztertzeari buruzko alderdiak alde batera utzita. Lan horien emaitzak artearen egoerari buruzko txosten zorrotza izan beharko luke, eta/edo hautatutako azterlanaren xedeari buruzko interpretazio kontzeptu eta ereduaren integrazioari buruzkoa, aztergaia ulertzea erraztuz edo beste analisi ikuspegi bat emanez.

Beraz, lan mota horren egitura honako hau izango da:

1. Aztergaiaren edo problemaren definizioa.
 2. Lortu beharreko helburuen definizioa (orokorrak eta espezifikoak).
 3. Bilaketa bibliografikoko prozeduren deskribapena.
 4. Iturri bibliografiko elektronikoak eta inprimatuak deskribatzea.
 5. Datu bibliografikoen analisia: lanaren atalik garrantzitsuenak izan beharko du eta bertan azalduko dira modu egituratuan aztergaiaren kontzeptu eta ideia garrantzitsuenak, bai eta horien analisia, integrazioa eta/edo interpretazioa ere. Kontzeptuak modu koherente eta ordenatuan azaltzeko beharrezkoak diren azpiataletan egituratu beharko da, 2. atalean proposatutako helburuak lortu ahal izateko.
 6. Esku hartzeko proposamenak edo beste azterketa enpiriko batzuk: ikasleak, egindako bibliografiaren analisisian oinarrituta, 5. atalean aztertu eta garatutako eduki bibliografikoaren interpretaziotik eratorritako analisi edo esku hartze enpirikoren bat proposatu beharko du.
 7. Ondorioak
- **Lan praktikoa profesionalak**: lan harremanen edozein arlotako kasu praktikoa profesional baten deskribapena jasoko duen txostena egitea izango da lan mota horren ardatza. Berariaz eta xehetasunez deskribatu beharko ditu lan praktikoa alderdi hauek:
 1. Gaia, xedea eta praktikaren izena.

2. Lan harremanen eremua, bibliografia eta dokumentazio praktika eta analisia barne hartzen dituen.
3. Erakunde, enpresa edo antolakundearen deskribapena, praktika bertan egiten delarik.
4. Praktikaren deskribapen eta azterketa xehatua: gradu amaierako lanaren xede den praktika modu nahikoaz eta behar bezala deskribatzeko behar diren azpiatal guztiak jasoko ditu.
5. Esku hartzerako inplikazioak.
6. Ondorioak.

6.2. Ondorio etikoak dituzten GRALak eta UPV/EHUko Etika Batzordearen jarraibideak betetzea:

Ondorio etikoak dauzkaten GRALei dagokionez, [Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia](#)ren 9. artikulua hurrengo adierazte du:

“1. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoen garrantzia eta azalduko dio nola bete lan akademiatarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko [Etika Batzordearen](#) webgunean argitaratuak.

2. Aipatutako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak”

“3. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.

4. Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademiatarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak”.

Ikerkuntza Errektoreordetzaren Etika Zerbitzuak hurrengo dokumentua jartzen du eskuragarri gomendioekin: [Implicaciones éticas en Actividades de Investigación Tutelada: TFG, TFM y Tesis Doctoral](#).

7. GRALeko MATRIKULA, LANA ENTREGATZEA ETA DEFENDATZEA

GRALeko matrikula

GRALeko matrikula egiteko, bai Lan Harremanetako Graduan eta bai Negozioen Kudeaketako + Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzean, beharrezkoa izango da ikaslea matrikulatzea, horretarako ezarritako epean, ikasketa plana amaitzeko falta zaizkion irakasgai guztietan. Hori ezinbestekoa izango da ikasleari tutore bat eslei dakion.

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan, ikasleek GRALa defendatu ahal izango dute behin egiaztatzen dutenean enborreko edo nahitaezko 12 ECTS kreditu baino ez zaizkiela falta gradua amaitzeko, kontuan hartu barik hautazko kredituak eta GRALari dagozkionak.

Negozioen Kudeaketako + Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzean, ikasleek GRALa defendatu ahal izango dute behin egiaztatzen dutenean enborreko edo nahitaezko 18 ECTS kreditu baino ez zaizkiela falta gradu bikoitza amaitzeko, kontuan hartu barik hautazko kredituak eta GRALari dagozkionak.

Matrikulak eskubidea ematen du ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizial izateko. Ikasleek aukeratu ahal izango dute urtean zehar egingo diren hiru deialdien artean. Haien datak ikasturte bakoitzaren hasieran iragarriko dira.

Ikaslea matrikulatu bada GRALean baina ez badu defendatu ikasturte horretan, berriz ere matrikulatu beharko da hurrengo ikasturtean, ikastegiak horretarako zehazten duen epean.

GRALa entregatzea

Graduko eta gradu bikoitzeko ikasleek GAUR aplikazioaren bidez egingo dute defentsarako eskaria.

Irakasle tutoreak ere aplikazio horretara igo beharko du bere txostena, gero ikasleek ADDI akademikora igo ahal izan dezaten lana. Gero, irakasleak ADDIn bertan balidatu beharko du lana.

Orduan epaimahaia eratuko da eta epaimahaikideek tutorearen balorazioa ikusi ahal izango dute, eta ikaslearen GRALa ere eskuratu ahal izango dute ADDI akademikoan.

GRALaren defentsa

Ikasleari defentsa egiteko hitzordua emango zaio GAURen bidez. Jakinarazpenean eguna, ordua eta epaimahaiaren osaera adieraziko zaizkio.

GRALaren inguruko informazio guztia (matrikulaz, defentsarako eskariak, inskripzioak eta deialdiez) graduaren webgunean ikus daiteke, GRALaren atalean.

8. GRALaren ebaluazioa

Gradu amaierako lanaren ebaluazioa defentsa entzungo duen epaimahaiak egingo du, ikastegiak izendatuko duena. Epaimahaiak kalifikazio bat emango du ikaslearen azalpena egin ondoren, eta tutoreak lana egiteko prozesua ebaluatzeko egindako txostena ikusi ondoren, UPV/EHUREN gradu amaierako lana egiteko arautegi ofizialaren 7. artikulua 7.1 puntuan adierazten den bezala.

8.1. TUTOREAK GRALa EGITEKO PROZESUA EBALUATZEA

Ikastegian irakasten duten sailtako batek esleitutako tutoreak egingo du prestaketa prozesuaren ebaluazioa. Lana egiteko prozesuak eta tutorearekiko harremanak fasetan egituratutako sekuentzia bat jarraitu behar dute.

GRALa egiteko prozesuaren amaieran eta tutoreak defentsarako oniritzia eman ondoren, tutoreak ebaluazioa egingo du txosten idatzi baten bidez eta/edo prozesuaren hiru alderdiri buruzko balorazio txantilo baten bidez: gaia hautatzea, planifikatzea eta garatzea (II. eranskina). Ebaluazio txosten hori, GRALarekin batera, defentsa egingo den epaimahaiko kide guztiei bidaliko zaie. Epaimahaiak GRALaren azken kalifikazioa emango du.

8.2. EPAIMAHAIK AHOZKO DEFENTSA ETA GRALaren EDUKIA EBALUATZEA

Unibertsitateko eta ikastegiko arautegietan adierazten den bezala, GRALa jendaurrean jarri beharko da ikastegiak horretarako izendatutako epaimahai baten aurrean. GRALa defendatzeko, ikasleek 20 minutu izango dituzte. Epaimahaien ezaugarriak arautegi horietan adierazita daude.

Epaimahaiak GRALaren ahozko aurkezpenarekin lotutako gaitasunak eta amaierako memoriaren edukia ebaluatuko ditu. Horretarako, epaimahaiak III. eranskinean agertzen den ebaluazio txantiloia bete dezake eta tutorearen txostena ikusi ondoren, GRALaren azken kalifikazioa emango du.

9. BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA

ARNAL GIL, Javier Ignacio (koord.) (2013): *Trabajo Fin de Grado (TFG)/Grado Bukaerako Lana* (GBL) (Bitarteko elektronikoa eta paperean editatua). Gasteizko Irakasleen Eskola, UPV/EHU.

FERRER, Virginia.; CARMONA, Moises. eta SORIA, Vanessa. (Ed.) (2012): *El trabajo de fin de grado: guía para estudiantes, docentes y agentes colaboradores*. Bartzelona, McGraw Hill.

FONDEVILLA GASCÓN, Joan Francisc. eta DEL OLMO ARRIAGA, Jose Luis (2013): *El trabajo de fin de grado en ciencias sociales y jurídicas: guía metodológica*. Madril, Ediciones Internacionales Universitarias.

GONZÁLEZ GARCÍA, Juana.M^a.; LEÓN MEJÍA, Ana. eta PEÑALBA SOTORRIO, Mercedes (2014): *Cómo escribir un trabajo de fin de grado: algunas experiencias y consejos prácticos*. Madril, Síntesis.

GUTIÉRREZ GARCÍA, Miguel Angel eta LÓPEZ DÍAZ, Alfonso (2012): *Gestión documental en trabajos fin de grado: uso de gestores documentales y flujos de trabajo*. Madril, Editorial Académica Española.

10.ERANSKINAK

I. ERANSKINA.- Gradu Amaierako Lanaren proiektua

**LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

GRADU AMAIERAKO LANAREN PROIEKTUA

Ikaslearen izen-deiturak

Tutorearen izen-deiturak

LANAREN IZENBURUA

DESKRIBAPENA/JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

METODOLOGIA

BIBLIOGRAFIA GARRANTZITSUENA (4 erreferentzia gehienez)

II. ERANSKINA.- TUTOREAREN EBALUAZIOA. LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA

GRALaren tutorearen izen-abizenak:	Data:
Ikaslearen izen-abizenak:	
GRALaren izenburua:	
<u>GRALa egiteko prozesuaren ebaluazio txostena eta oharra</u>	
Lan hau sarietarako gomendatzen da: <input type="checkbox"/> Francisca de Aculodi <input type="checkbox"/> Empar Pineda	
Lan hau enpresako praktikekin lotuta dago: <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	

GRALaren prozesua ebaluatzeko txostenaren txantiloia Aukerakoa da txantiloia hau erabiltzea eta ebaluazio txostentzat har liteke

1. GAIAREN AUKERAKETA (AZTERGAIAREN ZEHAZTAPENA)	Balorazioa
<ul style="list-style-type: none"> Graduari lotutako gaiaren identifikazioa: garbiro identifikatu eta adierazi du aztergaia, aukeraketa eta zehaztaperen irizpide garbiak erabilia. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
2. PLANIFIKAZIOA	
<ul style="list-style-type: none"> Gai izan da lanaren atalak eta alderdiak egoki planifikatzeko. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
<ul style="list-style-type: none"> Prozesu orokorra kontuan hartuta, lana aurkeztu du edukia egokiro eta modu koherentean justifikatuta. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
3. GARAPENA	
<ul style="list-style-type: none"> Egoki aukeratu ditu esparru teorikoa eratzeko edo lanaren gaia justifikatzeko dokumentazio iturriak, eta harremanetan jarri du dokumentazioa helburuekin. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
<ul style="list-style-type: none"> Datu enpiriko, praktiko edo bibliografikoak egoki bildu, aztertu eta interpretatu ditu. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
<ul style="list-style-type: none"> Ondorioak atera ditu modu sintetiko eta eraikitzailean. Azterlanaren mugak nabarmendu ditu, baita etorkizunerako ikerketa posibleak planteatu eta emaitzen aplikazio praktikoak proposatu ere. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
<ul style="list-style-type: none"> Egoki egin dizkio lanari tutoretza saioetan proposatutako aldaketak. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo
<ul style="list-style-type: none"> GRALa erredaktatzeko prozesuan eta tutorearekiko komunikazioan modu egokian erabili du gaiari eta lan harremanen arloari dagokion terminologia, ahoz eta idatziz. 	Oso gaizki 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ondo

III. ERANSKINA: EPAIMAHAIARENTZAKO TXANTILOIA

EPAIMAHAIARENTZAKO TXANTILOIA GRADU AMAIERAKO LANA BALORATZEKO	
1. GRALaren AHOZKO AZALPENA ETA DEFENTSA	
• Helarazi beharreko mezua ordenatua da eta, beraz, hasiera, garapena eta amaiera daude.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Azalpena argia izan da.	inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Emandako informazioa zuzena eta egokia izan da.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Jarraitutako arrazoibide edo argumentazioa zuzena eta egokia izan da.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Terminologia egokia eta zehatza erabili da.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Ikus-entzunezko baliabideak erabili badira (gardenkiak, Powerpoint, etab.), hori modu egokian egin da.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Iritziak trukatu dira edo epaimahaiak egindako galderei erantzun zaie modu egokian.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
2. GRALaren MEMORIAREN IDAZKETA ETA EDUKIA	
• Lanaren idazketa zuzena da ortografia mailan, eta atalka egituratuta dago, modu egokian, osotasun logikoa eta koherentea eratuz.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• Erabilitako bibliografiaren erreferentziak behar bezala idatzita daude eta testuan edota oin oharretan modu egokian aipatzen dira.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• GRALaren edukia eta helburuak bat datoz Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan eta jakintza arloan lantzen diren gaitasunekin.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
• GRALaren edukiak espiritu kritikoa erakusten du lan munduaren eta lan harremanen errealitate sozial, juridiko eta ekonomikoaren aurrean.	Inola ere ez Guztiz 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

GRALeko₁ azken kalifikazioa =

1 Epaimahaiak GRALa kalifikatuko du, tutoreak prestaketa prozesuari buruz egindako txostena ikusi ondoren.